

## **ERBESTEARI BURUZKO NAZIOARTEKO X. BATZARRA**

### **ERBESTEA NORBERAREN IKUSPUNTUTIK**

**Deustuko Unibertsitateak eta Hamaika Bide Elkarteak antolatuta**

**Bilbo-Donostia, 2009ko urriaren 5, 6, 7 eta 8**

Datorren urtean zehar, gerra zibilaren bukaeraren hirurogeita hamar urteurrena dela eta, gerraren oroimenak zein erbestea gogora ekartzeko eta ikertzeko ekimen ugari antolatzen ari dira. Horien lema orokorra **Hirurogeita hamar urte eta gero** izango da. Marko horretan guk Bilbon eta Donostian “Erbestea norberaren ikuspuntutik” Nazioarteko Batzarra antolatu nahi dugu.

- **Datak:**

2008ko urriaren 5, 6, 7 eta 8

- **Lerro tematikoak:**

“Erbestea norberaren ikuspuntutik” erbesteratuen subjektibitateak idatzitako testuak ikertzeko aukera zabala ematen digu: autobiografiak, memoriak, egunerokoak, gutun bildumak, deserriko poema bildumak, oroimenak eta testigantzak, e.a. Dokumentu horiek berreskuratzeak edota ezagutzen direnen azterketak pertsonaren bizipenak zuzenean ezagutzeko aukera ematen digute; horretarako, gure ustez, ezin hobeak dira aipatutako genero literarioak.

- **Proposamenak bidaltzeko data:**

2009ko maiatzaren 29 baino lehen. Egun horretarako batzorde antolatzailearen eskuetan ponentzia proposamenaren laburpena eta ikertzailearen fitxa egon beharko dira.

Batzarrak partehartzaile kopuru mugatua izango du. Kopurua mugatzeko laburpenak bidali diren datak zein Batzorde Antolatzailearen iritzia hartuko dira kontutan.

- **Dokumentazioa:**

Laburpena: Bertan proposamenaren izenburua eta, gehienez hamar lerroko testuan, ponentziaren helburua, asmoa eta gaiaren inguruan egingo den ekarpena azaldu beharko dira. Testuaren formatoa hauxe izango da: Times New Roman, 12 neurrikoa, 1,5 lerroartekoa.

Fitxa pertsonala: Bertan datu hauek azalduko dira: izen-abizenak, helbidea, kontaktu-telefonoa, posta elektronikoaren helbidea, egoera akademikoa zein profesionala, ikertzailearen unibertsitatea edo instituzioa.

Informazio hauek helbide hauetara bidaliko dira: [macillon@fil.deusto.es](mailto:macillon@fil.deusto.es) eta [zabalgir@euskalnet.net](mailto:zabalgir@euskalnet.net).

- **Batzorde antolatzailea:**

Mercedes Acillona doktorea  
Jose Angel Ascunce doktorea  
Jose Ramon Zabala doktorea

- **Web orrialdea**

[www.hamaikabide.org](http://www.hamaikabide.org)

**Urtarrilean zehar informazio gehiago jakin arazteko helburuarekin  
beste gutun bat zabalduko dugu. Bigarren zirkular horretan  
batzarraren antolaketari dagozkion zehaztasunak azalduko dira.**